

BALOREZKO PROPOSAMENA


Takilak ezartzearen beharra ikusi genuen konturatu ginelako gure egunerokoan zenbait egoera konpontzeko hobezinak direla, adibidez: erosketak egitetik datorren herritar bati bere lagunek deitu diote azken momentuan zinemara joateko eta bere etxea urruti gelditzen zaionez eta herri erdian dagoenez, ez dio astirik emango etxera itzuli eta zinemara joateko; beraz, gure makina aproposa izango litzateke erosketak takiletan gordetzeko eta lagunekin zinemara joateko presarik gabe. Horregatik, takilak egin eta instalatzen dituen enpresa bat sortzea erabaki dugu, herritarren behar horiek asetzeko. Merkatuari dagokionez, produktu hau udaletxe desberdinei zabalduko diegu eta deskontuak egiteko aukera egongo da erosten dutenaren arabera.

Produktu hau zehazki tamaina desberdinetako takiletan datza egoeraren arabera tamaina jakin batekoa edo beste batekoa beharko duelako gure erabiltzaileak, izan ere, poltsa bat uzteko edota mugikorra kargatzen uzteko ez da behar toki berbera. Aurkezpenean kontatu bezala, udalak nahi badu kolorea ere pertsonalizatu ahalko du nahi izanez gero, kolore erakargarriak izango ditugu eskura eroslearen arreta lortzeko produktua saltzeko orduan. Horrez gain, gure produktua oso erabilerraza izango da herritarrentzat. Pantaila bat izango du takilen erabilerarako, prezioa jakiteko eta gainera pantailatik takila irekitzeko kodigo bat lortuko dute erabiltzaileek bertatik maneiatu al izango dira. Badakigu pertsona edadetuei gehiago kostatuko zaiela gure produktua erabiltzea eta horregatik hizkuntza ezberdinetan jarriko ditugu pantailan egongo diren instrukzioak. Honekin lotuta, beste zenbait abantaila ere baditu esaterako mugikorra kargatzeko eta takila pertsonalizatzeko aukerak ematen dizkiegu bezeroei eta aukera hauek beste takilak sortzen dituzten enpresetatik bereizten gaituzte.

Laburbilduz, gure bezeroari takila bat eskainiko diogu zenbait berriztapenekin besteengandik bereizten gaituena eta milaka erabilera eman ditzakeena, mugikorra kargatetik paketeak jasotzeko aukera izateraino. Mugikorra kargatzeko behar dugun argindarra udala denez gure bezero potentziala kaleko argindarretik hartuko dugu.

Guztia hau egitearen inguruan, guk geuk sortuko eta muntatuko ditugu takilak gure tailerrean beste zenbait enpresetatik lortutako lehengaiekin eta horretarako ongi prestatutako kideez baliatuko gara. Gurekin kontaktuan ipintzeari begira, telefono zenbaki bat izango dugu mantenuarentzako eta gu joango gara udaletara gure produktua eskaintzera.

Takila kopururen arabera



2m gehienez

1-TAKILA

2-PANTAILA

3- DIRUA SARTZEKO ZULOA: Bertatik dirua sartzeko erabiliko da. Pantailan jartzen duen prezioa sartuko da. Bileteak eta txanponak sartu daitezke.

4- KANBIOAK ATERATZEKO ZULOA: Sartutako diruak kanbioak behar baditu hortik aterako dira kanbioak.